

2021eko MARTXOAREN 17ko OSOKO BILKURAKO AKTA.

Tokia: Berako Herriko Etxea.
Eguna: 2021-03-17.
Hasiera ordua: 19:35.
Bilkura mota: ohikoa, 1. deia.

BERTARATUAK:

EH BILDU

M. Aranzazu Zubieta Ochoteco

Jose Esteban Aguirre Zubieta

Estibaliz Pinacho Olaciregui

Josu Iratzoki Agirre

Maialen Chantre Irazoki

HERRIRAKO

German Castillo Lazcanotegui

Jose Antonio Oyarzabal Iribas

Nahuel Maximiliano Ibarburi Lompre

Raquel Quiroga Tapia

EZ EGOTE JUSTIFIKATUAK:

Julen Errandonea Martin

ALKATEA (Bilkurako buru):

Aitor Elexpuru Egaña

IDAZKARIA: Miguel Jose Belarra Tellechea, ekintzaren akta jasotzen du.

EZTABAIDATUTAKO GAIK (behar bezala egindako deialdiaren Gai Zerrendan sartu zirenak):

1. AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONARPENA.

Alkateak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko bilkurako aktari (2021/02/17). Inork ez du azalpenik egin eta **aho batez** onartzen da akta.

2. 10. POLIGONOKO 57. ETA 58. PARTZELETAKO (2. ETA 3. PARTZELAK, SK2 SEKTOREA, UE10) XEHETASUN AZTERLANA. BEHIN BETIKO ONESPENA.

Ikusirik:

- 10. poligonoko 57. eta 58. partzeletako xehetasun azterlana (2. eta 3. partzelak, SK2 sektorea, UE10) —Kaxerna Karrika—, Berako Udalak 2012ko uztailearen 5ean onartutako S.K.2-U.E.10eko birpartzelazio proiektuan xedatutakora itzultzea xede; horrela, 10. poligonoko 57. eta 58. partzeletarako zehaztapenak Berako Udal Planean jasotakoak izango dira (2018an sustatutako xehetasun azterlanean oinarrituta aldatu baitziren). Sustatzaileak dira XXX, XXX, XXX eta XXX. Dokumentua XXX arkitektoak idatzi zuen.

- Nasuvinsako arkitektoak, Udaleko aholkulariak, 2021eko urtarrilaren 8an egindako txostena.

- Udal Idazkariak 2021eko urtarrilaren 21ean egindako txosten juridikoa.

Kontuan izanda:

- Agiria hasiera batean onartu zela urtarrilaren 21eko 8/2021 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez.

- Espedientea jendaurrean jarri zela, iragarkiak argitaratuz NAOn, prentsan eta Iragarki Oholean.

- Espedientea jendaurrean egon zen epealdian ez zela alegaziorik aurkeztu.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 63., 72. eta 74. artikuluekin bat etorriz,

aho batez ERABAKITZEN DA:

1. Behin betiko onespina ematea 10. poligonoko 57. eta 58. partzeletako xehetasun azterlanari (2. eta 3. partzelak, SK2 sektorea, UE10) —Kaxerna Karrika—.

2. Behin betiko onepen hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

3. Erabaki hau jakinaraztea sustatzaileei.

4. Erabaki hau Nafarroako Gobernuko Lurralde Antolamendu, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuari helaraztea, onartutako agiriarekin eta emandako txosten teknikoekin batera, gehienez ere 10 eguneko epean.

M. Aranzazu Zubieta bilerara sartu egin da.

3. BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEAREN ESTATUTUEN 11.3 ARTIKULUA ALDATZEA.

Alkateak gaia azaldu ondoren, honako erabaki hau hartu da:

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak bere estatutuen 11.3 artikulua aldatzeko espedientea izapidetu du, honako aurreikuspen hau gehitzeko: *"Udal bakoitzak ordezkarien ordezekoak izendatuko ditu, titularrak lan, osasun edo familia arrazoiengatik Batzorde Erabakitzailearen bileretan ezin parte hartzea adierazten duen kasuetarako"*.

Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak aldeko txostena eman zuen 2021eko otsailaren 12an.

Azaldutakoa oinarri hartuta, eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 50.3 artikuluan ezarritakoa kontuan hartuz,

aho batez (legez eskatutako gehiengo osoa) ERABAKITZEN DA:

1. Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen estatutuetak 11.3 artikulua aldaketa onartzea, transkribatutako testuarekin.

2. Erabaki hau helaraztea Mankomunitateari.

Estibaliz Pinacho bilerara sartu egin da.

4. MOZIO ETA ADIERAZPEN INSTITUZIONALAK.

Alkateak 2 adierazpen instituzional azaldu ondoren, honako erabaki hauek hartu dira:

4.1. 2021eko otsailaren 19an, Leotzeko Udalak erabaki zuen erakunde adierazpen hau onartzea: **Leoz/Leotz udalerrian instalatu beharreko parke eolikoak eta parke fotovoltaikoen proiektuen aurkako mozioa**, honako hau baitio:

"Joan den urtearen amaieran, Accionak udal honi adierazi zion garrantzi handiko bi proiektu ezarri nahi zituela, "Mairaga" eta "Barranco de Mairaga"-ko parke eolikoak (50MW bakoitza) instalatzeko hainbat udalerritan, horien artean Leoz, eta zenbait kontzejuri ere eragin zien (Iratxeta eta Leotz, besteak beste).

Enpresak informazioa eman ondoren, udal honek jakin zuen foru lurralde osoan proiektu eoliko eta fotovoltaiko berriak aurkeztu direla, batzuk izapidetzen ari direla eta beste batzuk jarduketak hasteko zain daudela.

Udal honek aitortzen du energia fosilak energia berriztagarri, jasangarri eta ez-kutsatzaileetara aldatzeko premia larria dagoela, baina trantsizio ekologikoa ezin da egin gure ingurunearen industrializazioaren kontura edo gure kasuan, Erdi Eremuaren eredu sozial eta ekonomikoa arriskuan jarritz; izan ere, planifikazio egokirik gabeko eredu zabaltzaile batek aurrez aurre talka egiten du politika guztiekin, Nafarroako Gobernuaren Lurralde Kohesiorako Departamentuak, aldeztu duten eta garatzen ari den, eta halaber, Udal honek aldeztu dituen politika horiekin.

Gainera, udal honek energia garbiak eta berriztagarriak erabiltzea defendatzen du, baina, aldi berean, ingurunearekin eta mendien erabilera onenekin bateragarriak izan daitezen, betiere ahalik eta ingurumen-inpaktu txikiena lortzeko helburuarekin.

Hala ere, plangintza inkoherente batean inbertitzaile handien interes ekonomizistak bakarrik sartuko dira jokoan, instalazio txikia eta autokontsumoa baztertuz, eta ez da kontuan hartu kaltetutako biztanleen benetako posizionamendua.

Egia da Nafarroak 2030 Ortzimuga Nafarroako Energia Plana (Pen 2030) duela. Plan horren 2030erako helburu estrategikoak, zehazki energia eolikoari dagokionez, honako hauek dira: autohornikuntza-ratioak hobetzea, minieolikoekin autokontsumoko proiektuak sustatzeko laguntzak eta zerga-kenkariak, eta parke eolikoak berrindartzea. Eta egia da, halaber, Plan horretan Nafarroan parke eolikoetarako Harrera Gaitasunaren Mapa ezarri dela.

Baina egia da mapa hori ezin dela tresna egokia izan parke eolikoak modu desordenatuan ezartzeko, gure mendiak industrialde bihurtuz. Dokumentu estrategikoa izan daiteke, baina ez du balio, nahi den bezala, poligono eolikoak ezarpen masiboari aurre

egiteko; izan ere, ez dago planeamendu koherenterik eta egungo errealitate energetikora egokituta dagoen planeamendurik, eta bertan identifikatu behar dira eremukako potentzial energetikoen mailak eta eremukako poligonoak ezartzeko lehentasunak.

Segurtasun faltako egoera horri gehitu behar zaio Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Legea aurreproiektu fasean dagoela oraindik; Lurralde Antolamenduko Planek ez dutela horrelako proiektuak ezartzeko erabileren plangintza egokirik jasotzen; eta Leoz/Leotzen kasuan ere ez dagoela horrelako instalazioen erabileren eskaerei erantzun ahal izango dien hirigintza-plangintza egokirik.

Horrela, bada, izapidetze-sistema bat dugu aurrean, testuinguru arauemaile eta planifikatzaile eskasean oinarritua, eta ez du bermatzen ez gardentasuna, ez parte-hartzea, ez benetako ingurumen-irismena Leoz/Leotz bezalako eremu batean, non gure lurraldearen zati handi batean halako instalazioek gainezka egiten baitute.

Egoera horrek gogoeta eragin behar du energia-ereduaren aldaketa, kontsumo arrazionalagoa eta gure ingurunearen beharretara eta aukeretara egokituagoa sustatzeko premiazko beharrari buruz, bai eta egitura eta instalazio berriztagarrien dimentsionamendua eta kokapena planifikatzeko irizpideak, izapideak eta plangintza bateratzeko beharrari buruz ere.

Partaidetza-eredu batean sinesten dugu, ukitutako biztanle guztiak aintzat hartuko dituen, betiere natura-, paisaia-, historia-, kultura- eta gizarte-ondarea erabat errespetatuz. Eredu ez espekulatiboa, lurraldeek beren energiaren kudeaketan inplikazio handiagoa izango duena eta energia berriztagarriak landa-garapen iraunkorrarekin, gure ondarearen zaintzarekin eta kontserbazioarekin bateragarri egitea ahalbidetuko duena.

Horregatik guztiagatik, HONAKO HAU ERABAKITZEN DA AHO BATEZ:

LEHENENGOA.- Berariaz adieraztea Udalak ez dituela onartzen Accionak proiektatutako “Mairaga” eta “Barranco de Mairaga-ko” parke eolikoak, Erdialdeko Eremuko zenbait udalerrri eta kontzejuri eragiten dietenak, ez eta Leoz/Leotz udalerrian instalatu nahi den beste edozein parke eoliko edo fotovoltaiko ere.

BIGARRENA.- NAFARROAKO GOBERNUARI ESKATZEA parke eolikoaren eta fotovoltaikoen proiektu guztien LUZAMENDU bat, izapidetzen ari direnak edo eskatutakoak, harik eta 2030erako Nafarroako Ortzimuga Plan Energetikoa garatzeko plangintza bat egin arte, zehazkiago Nafarroan parke eolikoetarako Harrera Gaitasunaren Mapa garatzeko plangintza bat egin arte, herritar guztiek eta, bereziki, eremu kaltetuenetako gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-eragileek plangintza parte-hartzailea sustatuz.

HIRUGARRENA.- Adierazpen Instituzional hau Nafarroako Gobernuaren Ekonomiararen eta Enpresen Garapeneko Departamentuari (Industria Antolamenduko, Energia Azpiegiturretako eta Meatzetako Zerbitzua) eta Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuari jakinaraztea.

LAUGARRENA.- Alkatzaren bidez, Adierazpen Instituzional honen berri ematea interesgarritzat jotzen diren udal eta kontzeju guztiei eta beste administrazio publiko batzuei, onartutako Adierazpen Instituzional honen aldeko jarrera har dezaten. "

Udal honek adierazpen instituzionalaren eduki osoa babesten du eta, horregatik, honako

hau ERABAKITZEN DU **aho batez**:

LEHENENGOA: Berako Udala atxikitzea **Leoz/Leotz udalerrian instalatu beharreko parke eolikoan eta parke fotovoltaikoen proiektuen aurkako mozioa** izeneko adierazpen instituzionalari, Leozko Udalak 2021eko otsailaren 19ko erabakian onartutakoa.

BIGARRENA: Erabaki hau Leozko Udalari helaraztea, Leozko udal-mugartean instalazio horiek ezartzearen aurkako defentsa-lanetan sar dezan.

4.2. MARTXOAREN 8a. ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.

Duela ia urtebete gure jendartea eta bizitzeko moduak astintzen zituen COVID19ak eragindako pandemiak, inoiz ez bezala. Krisi multidimentsional eta sistemiko bat bizi dugu, aurrekaririk gabekoa, lehendik zetozen beste krisi batzuekin gurutzatzen eta lotzen den krisia, hala nola krisi ekologikoa eta zaintzen krisiekin.

Pandemiak agerian utzi du gordinki feminismotik aspaldi aldarrikatzen ari zena: bizitza zaugarria eta dependientea da, eko eta interdependentea. Ezerk ez du bizitzaren zaintza baino garrantzitsuagoa izan behar, pandemiarekin muturreraino ahuldu eta prekarizatu den bizitza. Bizitzari baldintza duin eta justuetan eustearen aldeko apustu erradikala egiteko unea da: horrek begirada feminista eskatzen du erakundeetatik bultzatzen ditugun politika guztietan, dagoeneko egiaztatuta baitago emakumeek eta neskek eragin negatiboagoa izan dutela krisi honetan, batez ere krisira zaugarritasun edo diskriminazio handieneko egoeran sartu zirenentzat.

Eraldaketa erradikalak behar ditugu, feminismoak ozen dio aspaldi. Gure gizarteak justizian eta demokrazian aurrera egin dezan, erdigunean erreprodukzio sozial jasangarria jar dezaten politika publikoak behar ditugu, kapital-metaketa baztertuz, zeinak gizarte-gehiengoan bizi-baldintzak prekarioagoak bihurtzen baititu, merkantilizatu egiten baitu eta natura ustiatzen baitu, belaunaldi berrien etorkizuna arriskuan jarriz. Eta orain, krisi honek desberdintasunak areagotzea eta emakumeen eskubideetan atzerapena eragin ez dezan, are premiazkoagoa da genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala txertatzen duten neurri feministak hartzea.

Hilabete hauetan genero-desberdintasun estrukturalen gorakada errealitate ukaezina da: emakumeek beren gain hartu dute zaintzen karga gehiena, ordaindua eta ordaindu gabea; lana galdu edo lan-baldintza are prekarizatuagoak ezarri dizkiete; birusa hartzeko arrisku handiagoa dute, genero-ikuspegiarekin ikertu gabe jarraitzen zuten bitartean; indarkeria matxista areagotu egin da, hari aurre egiteko baliabideak eta baldintza materialak mugatzen ziren bitartean; beste behar batzuk baztertu egin dira, hala nola sexu- eta ugalketa-osasuna edo osasun mentalarekin lotuak; parte-hartze soziopolitikorako aukera eta baldintzak galdu dituzte, etab.: azken batean, eta batez ere kolektibo zaugarrienetako emakumei dagokienez, pobretu dira zentzu guztietan, indarkeriaren aurrean babesgabeago daude, haien osasuna okertu egin da, zaintza-lanen zama handiagoa da...

Irtenbidea ez da pandemiaren aurreko egoerara itzultzea, emakume gehienek lehenago ere bizi baitzuten diskriminazioa eta eskubideen urraketa: orain da unea pandemian areagotutako larrialdiei erantzuna emateko, eta, aldi berean, guztiontzako bizitza duina bermatzea eta zaintzea lehentasuntzat joko duen antolaketa sozial, ekologiko eta

ekonomikoko sistema bateranzko oinarri sendoak ezartzeko.

Publikotik krisi honi egoki erantzungo dioten erantzun integralak premiazkoak dira, esparru eta maila guztietan, globaletik tokikoraino eta alderantziz. Euskal Herrian, gure eskumen-esparru mugatuan, argi daukagu gure lurraldeetan gure bizitzaren burujabe ez garen bitartean ezin izango ditugula beharrezko aldaketa guztiak bultzatu: hala ere, badaude aukerak bide hori marrazten joateko, sisteman pitzadurak irekitzeko, eta, hain zuzen ere, tokikoa da eremu egokiena. Azken hilabeteetan Euskal Herriko hainbat udalerritan bultzatu diren zaintzako ekimen publiko-komunitarioak eredu ezin hobea dira.

Horretarako, erakundeak koordinatu behar dira, eta bideak ireki herritarrek erabaki publikoetan benetan eta eraginkortasunez parte har dezaten, batez ere emakume-talde anitzek eta mugimendu feministak. Behar bezala aurre egin behar diogu daukagun erantzukizun publiko handiari, eta hori premisa feministetatik egin behar da, artikulazioa eta parte-hartzea bultzatuz, plan eta programa eraldatzaileak eginez, larrialdiei arreta emanaz eta behar diren baliabide guztiak ahalbidetuz.

Ez dago aitzakiarik: ez argazkirik ez adierazpen hutsik martxoaren 8aren atarian gaudelako. Egun honek udal honek politika publiko-komunitario feministekin duen konpromisoa berresteko balio behar du, krisiaren ondoriozko larrialdiei erantzuteko eta erdigunean bizitza zainduko duen gizarte-eredu baterantz joateko.

Horregatik guztiagatik, Berako Udalak honako hau **ERABAKITZEN DU aho batez**:

1. COVID19aren ondorioak eta kolektibo eta pertsona ahulenen egoera eta beharrak aztertzea, besteak beste: bakarrik bizi diren adinekoak (nagusiki isolatuak bizi direnak eta emakumeak), guraso bakarreko amak, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak eta haurrak, kalean dauden pertsonak, familia-eremuko zaintzaileak (ordainduak eta ez ordainduak), emakume langabeak, etab. Ikuspegi feminista eta tokiko eragile sozialen parte-hartzea bermatu beharko da, bereziki emakume eta feministena.

2. Errealitate horren eta identifikatutako beharren aurrean, premiazko ekintza eta neurri sorta bat identifikatzea eta plangintza batean jasotzea, baliabideak, kronograma eta arduradunak zehaztuz eta herritarren parte-hartzea bermatuz, bereziki emakumeen kolektiboena, bai diseinuan, bai jarraipenean eta ebaluazioan. Mota honetakoak izan daitezke, besteak beste:

◦ Kolektibo zaurgarriari arreta emateko eredia eta funtzionamendua berrikustea, pertsona / kolektiboen mota zein emandako zerbitzuen funtzionamendua eta edukia zabaltzeko, ikuspegi feminista eta ahalduntze-ikuspegitik, adibidez: adineko pertsonak (bereziki bakarrik bizi direnak eta emakumeak), familia kalteberak, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak eta haurrak, etxeko langileak, ordaindu gabeko zaintzaileak familia-eremuan, etorri berriak (egindako azterketaren eta gure errealitatearen arabera)...

◦ Premia horiei behar bezala erantzungo dieten zerbitzuak eta baliabideak identifikatzea eta abian jartzea: bakarrik bizi diren adinekoei jarraipen zuzena, etxebizitza-baliabideak erraztea (alokairu soziala, etxebizitza komunitarioak), etxez etxeko laguntza-zerbitzua indartzea eta egokitzea, zainketekin lotutako erabilera komunitarioarako udal-espazioak egokitzea, indarkeriaren biktimentzako baliabide berriak, ezohiko diru-laguntzak eta/edo laguntza ekonomiko osagarriak, etab.

◦ Zaintzaileen baldintzak (ordainduak eta ez ordainduak) duintzeko ekintzak: informazioa, aholkularitza, eredu kooperatiboak bultzatzeko laguntza-ildoak, etab.

3. Emakume, nerabe eta neskatoen ahalduntze indibidual eta kolektiborako ekintzak bultzatzea, kolektibo feministen eskutik.

4. Gure herriko emakumeen ehun-soziala indartzea, premisa feministetatik eta ahalduntze-premisetatik.

5. Tokiko zaintza sare komunitarioei babesa eta baliabideak ematea.

6. Zaintza-lanen balio sozial eta politikoa aitortzen duten komunikazio-kanpainak egitea, erantzunkidetasunari arreta berezia eskainiz eta etxeko langileenak bezalako errealitateak ikusaraziz.

7. Premisa feministetatik abiatuta, zaintzei buruzko herri eztabaida-guneak irekitzea, askotariko kolektibo sozial, administrazioa eta gure udalerrian dauden beste sektore batzuk inplikatur, eta zaintzen erantzunkidetasunerako tokiko itun bat bultzatzea.

8. Harrera publiko-komunitarioko programak sustatzea iritsi berriak diren pertsonentzat, tokiko eragile sozialen parte-hartzearekin eta kolektibo ahulenei arreta berezia jarritz, genero-ikuspegia aplikatur.

9. Zeharka, identifikatu diren Udalerriko emakume zein kolektibo feministek parte hartzeko bideak irekiko dira, identifikatu diren jarduera guztien diseinutik ebaluazioraino parte hartu ahal izateko, euren iritzia kontuan hartuz.

5. BANDOAK ETA ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Honako bando eta Alkatezaren ebazpen hauen jakinaren gainean geratu dira:

- Bandoak: B4/2021etik B6/2021era arte.

- Ebazpenak: 33/2021 zenbakiko Ebazpenetik (2021/02/16) 63/2021 zenbakiko Ebazpenera arte (2021/03/11).

6. ESKAERAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEEN KONTROLA.

Ez dira izan.

Beste aztergairik izan gabe, 20:15ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

O.E. ALKATEA,
Aitor Elexpuru Egaña.

IDAZKARIA,
Miguel J. Belarra Tellechea.